



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

ALDUNDIAK DINO URDAIBAICO GUGGENHEIM PROIEKTUA GAUZATU, GAUZATUKO DALA, EUROPAKO FUNTSAKAZ EDO BARIK

- Unai Rementeria ahaldun nagusiak Bizkaiko Batzar Nagusien kontrolerako osoko bilkuran berretsi dauenez, Next Generation funts barik Guggenheim museoaren anpliazinoa “erritmo txikiagoan” egingo da, “egin beharreko” proiektua dalako.

(Gernikan, 2021eko bagilaren 30ean). Foru Gobernuak hamaika bider emon behar izan ditu azalpenak gaur Gernikako Batzar Etxean egin dan kontrolerako saioan. Horreetako batean, Unai Rementeria ahaldun nagusiak azaldu dauenez, Aldundiak Urdaibaiko Guggenheim museoaren proiektua Europako funtsakaz edo barik gauzatzen lagunduko dau. “Proiektu batzuk, egin, egin behar dira, funtsak etorri edo ez, lurraldearentzat onak diralako”. Europaren laguntza iristen bada, proiektua “azkarrago” joango da, eta funtsak barik erritmoa “motelagoa” izango da.

Rementeriak gaur goizean emon dau erantzuna, Bizkaiko Batzar Nagusietako kontrolerako osoko bilkuran, Elkarrekin Bizkaiak proiektu hori martxan jartearen ganean egindako itaun batean; “beharrezkoa” Aldundiarentzat, izan be, hasierako “127” milioi euroko aurrekontua aurreikusten da; horreetatik, “81” Europako Batzordeari eskatu jakoz, “Next Generation” funtsen bidez, dirukopuru “neurribakoa” Hector Fernandez batzarkidearentzat. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren patronatuak daukan eretxiaren ganean be galdetu dau. Fernandezek jakin gura izan dau proiektuak zer eragin izango dauen Gernikako itsasadarrean eta zergaitik egiten dan “karta bakarrerako apustua” eskualde horretako garapen ekonomikorako planetan.

Ahaldun nagusiak esan dau Guggenheim Museoaren Patronatuan aurkeztutako proiektua babesten dabela, “helburuak partekatzen doguzalako”. Proiektua “borobila” eta “bakarra” dala esan dau Rementeriak, eta “garai barri honen ondorio” dala uste dau, “kulturea, jarduera ekonomikoa eta ingurumenaren babesa” batzen ditualako, mundu mailan “erreferentzia” dan marka bategaz: Guggenheim.

Rementeriak generatu dauenez, proiektuak Biosferaren Erreserba “errespetetan” dau eta Urdaibaiko eskualdearentzat “aukera bardintasuna bultzatzen” da. Ingurumenaren eta aurrekontuen ikuspegitik, proiektu “iraunkorra da zentzu guztietan”. Europako Batzordearen babesa jaso ezker, proiektu “globala” izango litzateke, baina funts horreek onartzen ez baditue



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

“erritmo txikiagoan” egingo litzateke. Ahdun nagusiak aurreratu dauenez, Urdaibaiko Erreserbako arduradunakaz “alkarrizketak” izan ditue daborduko, baina goiz da erakunde horrek eretxia emon daian, proiektuaren inguruko “xehetasun gehiago” izan arte; izan be, gune bien arteko loturen ganeko eretxia emon beharko dau. Rementeriak ohartarazo dauenez, Dalian eta ontziolan egin beharreko jarduketak udal-plangintzari jagokoz.

BIZKAIAREN ERAKARPENA INBERTSINORAKO

Beste gai batean, Amaya Fernandez Talde Berezia-PPBko bozeroaleak, Bizkaia inbertsinorako lurralde “erakargarria” izan daiten Foru Aldundiak ezarriko dituan neurrien inguruan galdetu deutso ahdun nagusiari. Popularren batzarkidearen ustez, lurraldeak hainbat gauza behar ditu: industria-politika bat “orain holangorik ez dagolako”, jarduera ekonomikoa sustatuko daben zerga-beherapenak izango dituan zerga-erreforma barri bat ezarteko “itun” bat, Administrazioaren gastu “ez-emonkorrak” murriztea, eta garraio-azpiegituren eta azpiegitura digitalen ganeko politika bat, “bidesari politika aproposagaz”.

“20 hilebete geroago” itaun “bera” egitea kritikau ostean, ahdun nagusiak Foru Gobernuak Bizkairako inbertsinoa eta talentua erakartera bideratuta aurrera daroazan ekintzen errepaso egin dau. Enpresak erakarteko haztapenen artean, bidesarien politikea “beste bat da”, baina beste “esanguratsua” batzuek baino “balio txikiagoa dauka”. Azken horreen artean, Jaurlaritzak inbertsinoak eta talentua (digitala, energetikoa eta ingurumenekoa, sozio-sanitarioa, eta azpiegituren garapenen ganekoa) erakarteko egin dituan lau trantsizioei lotutako ekimenak gogorarazo ditu barriro.

Industriaren arloan, Rementeriak industrietako “barrikuntza-unidadeak” erakartea dauka helburu, lurraldeak bereganatzea lortzen dituan proiektuak “errotzen” saiatzeko. Erakarpen politika hori, “Estaduan ez dagozan kenkariak” barne hartzen dituan fiskalitate egoki bategaz egiten da. Horren harira, ahdun nagusiak azaldu dau bere Gobernuaren eredu baliabide publikoei eusteko “beharrezkoa” dan oreka fiskalean oinarrituta dagoa, Talde Bereziak Bizkairako aldarrikatzen dauen “Madrilgo eredutik” urrun.

KONTRATAZINO-POLITIKEA

Kontsultoretza enpresen inguruan CNMCK emondako ebazpena ezagutu ostean, EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia taldeek azalpenak eskatu deutsez Aldundiari, Foru Administrazioa enpresa horreekaz “bat eginda” ete dagon jakiteko. Xabier Benito talde moreko ordezkariak azaldu dauenez, CNMCren ebazpenean, “Euskadi sarearen epizentroan dago”, eta Foru Administrazio



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

osoan “frogautako 16 gertakarik” daukie eragina, hau da, egitura horren Iparraldeko sarearen “% 14,4k”.

Talde biek “neurri zuzentzaileak” eskatu deutsez Foru Gobernuari iruzur klase hori saihesteko. Hain zuzen be, Arantza Urkaregi EH Bilduko ordezkariak kontratazino publikoan prozedura negoziatua ez erabilteko eskatu dau, edo, hala bajagoko, kartelean inplikautako aholkularitza enpresak ez konbidetako. Kexu dira Foru Gobernuak merkataritzako soziedade foralak gero eta gehiago erabilten ditualako kontratatuko, eta hori enpleoaren kalidadearen kalterako izango dalako. Benitok Foru Aldundiak “barruko ikerketa bat” egitea, aholkularitza enpresa horreek aurkeztutako lanak ez erabiltea eta Kontu Auzitegiak kontratu horreek fiskalizetea eskatu dau.

Elixabete Etxanobe Administrazio Publikoko eta Erakunde Harremanetarako diputatuak esan dauenez, Aldundiak ez dau kontratazino politikea aldatuko, izan be, CNMCK ez deutso “inolako gaitzespenik” egiten Foru Administrazioari. Halanda be, gertakariengaitik “kezkatuta” agertu da, “gure esku dagon guztia” egingo dabela ohartarazo dau, “etorkizunean jardunbide hori gerta ez daiten”. Foru Aldundiko arduradunaren ustez, CNMCren ebazpenak agerian izten dau “akatsak” dagozala lehiaketa batzuen kontratu-kategorian, eta hori dala eta “erreza” dala hori egitea, foru sektore publikoan formula hori “oso gitxi” erabilten dan arren, Aldundiak “gehienbat” kontratazino prozedura edegia sustatzen dauelako.

BESTE GAI BATZUK

Foru Aldundiak Hidrogenoaren Euskal Korridorean parte hartzeari, LGTBI kolektiboari zuzendutako politikei, Eurokopa Leagueko eta emakumezkoen Championseko finalei, adinbako baten zaintza kentzearen inguruko epaiketari, Gaztelugatxeko tiketing zerbitzuari, salgaien garraioaren sektoreari laguntzeko neurriei eta Petronorreko ERTEari buruz galdetu deutso oposizioak Foru Gobernuari.

Foru Gobernuak emondako erantzunean azaldu dauenez, “garagarrileko lehenengo egunetan” UEFAk berretsi egin beharko dau euskal agintariekin 2020ko Eurokopa erakarteko gastutako 1,3 milioi euroak itzultzea, eta baita Europako final biak San Mamesen egingo diran ala ez. Erakundeen arteko “lankidetzaz-bera” erabiliko da futbolaren Europako erakundeagaz akordioa ixteko.

Gaztelugatxerako sarbideei jagokenez, bihartik aurrera 900 lagunek bisitatu ahal izango dabe egunean baseleiza ingurua –pandemia aurretik edukiera 3.000ra mugatzen zan–, eta kontrol bat egingo da banakako sarrerak gauzatzen dirala



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

egiaztetako, eta baita erreserben miaketa bat be, sarrerek emoteko orduan iruzurrak saihesteko.

Kamioientzako edukiera handiko errepide sarean bidesariak jarteari jagokonez, Imanol Pradales Azpiegitura eta Lurralde Garapeneko foru diputatuak iragarri dauenez, "datozan asteetan" hasiko ditu bilerak garraio sektoreko ordezkariakaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN SOSTIENE QUE EL PROYECTO GUGGENHEIM DE URDAIBAI SE LLEVARÁ A CABO CON O SIN FONDOS EUROPEOS

- **El diputado general, Unai Rementeria, reitera en el pleno de control de las Juntas Generales de Bizkaia que la ampliación del Guggenheim se realizará “a un ritmo menor” sin los fondos Next Generation, porque es un proyecto “que hay que hacer”.**

(Gernika, a 30 de junio de 2021). Hasta en once ocasiones ha tenido que dar hoy explicaciones el Gobierno foral en el pleno de control que se ha celebrado en la Casa de Juntas de Gernika. En una de ellas, el diputado general, Unai Rementeria, ha señalado que la Diputación apoyará la ejecución del proyecto del Guggenheim de Urdaibai con o sin fondos europeos. “Algunos proyectos, vengan o no los fondos hay que hacerlos, porque son buenos para el territorio”. Si llega la ayuda europea, el proyecto iría “más rápido” y sin los fondos el ritmo de ejecución “será menor”.

La respuesta de Rementeria se ha producido esta mañana en el pleno de control de la Cámara vizcaína en una interpelación de Elkarrekin Bizkaia sobre la puesta en marcha de este proyecto, “necesario” para la Diputación, que contempla un presupuesto inicial de “127” millones de euros, de ellos, “81” solicitados a la Comisión Europea a través de los fondos “Next Generation”. La cantidad es “desproporcionada” para el apoderado Héctor Fernández, quien ha preguntado también por la opinión que tiene del proyecto el patronato de la Reserva de la Biosfera de Urdaibai. El representante del grupo morado ha querido conocer el impacto que el proyecto tendrá en la ría de Gernika y por qué razón “se apuesta a una sola carta” en los planes de desarrollo económico de esta comarca.

El diputado general ha dicho que apoyan el proyecto que fue presentado recientemente en el Patronato del Guggenheim porque “compartimos objetivos”. Rementeria, que ha tachado el plan de ampliación de “redondo” y “único”, cree que obedece “a este nuevo tiempo”, ya que “une cultura, actividad económica y protección del medio ambiente”, con una marca “referencial” a nivel mundial como es el Guggenheim.

Rementeria ha añadido también que el proyecto es “totalmente respetuoso” con la Reserva de la Biosfera y supone “un impulso en igualdad de oportunidades” para la comarca de Urdaibai. Es un proyecto “sostenible en todos los sentidos” desde el punto de vista medio ambiental y “también presupuestario”. El apoyo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de la Comisión Europea lo convertiría, a su juicio, en un proyecto “global”, si bien se hará “a un ritmo menor” en el caso de que no se concedan los fondos europeos.

El diputado general ha avanzado que ya se han producido “conversaciones” con los responsables de la Reserva de Urdaibai, si bien es pronto para que este organismo verse opinión hasta que se tenga “más detalle” del proyecto, un organismo que tendrá que emitir opinión sobre las conexiones de los dos espacios culturales que podrán comunicarse a pie, en bicicleta o en tren. Rementeria ha advertido que las actuaciones en Dalia y en el astillero competen, sin embargo, al planeamiento municipal.

UN TERRITORIO ATRACTIVO PARA LA INVERSIÓN

En otro asunto, la portavoz del grupo Mixto-PPB, Amaya Fernández, ha interpelado al diputado general por las medidas que aplicará la Diputación para que Bizkaia sea un territorio “atractivo” para la inversión. La apoderada popular cree que Bizkaia necesita una política industrial que ahora “brilla por su ausencia”, un “pacto” para poner en marcha una nueva reforma fiscal con rebajas tributarias que incentiven la actividad económica, una reducción de los gastos “improductivos” de la Administración y una política de infraestructuras de transporte y digital, con una “buena política de peajes”.

Tras criticar que se haga la “misma” interpelación “20 meses después”, el diputado general ha hecho un repaso de las actuaciones en las que el Gobierno foral está enfocado para atraer inversión y talento para Bizkaia. Dentro de las “ponderaciones” que esgrime su Gobierno para atraer empresas la política de peajes es “una más, pero que tiene menor valor” respecto a otras acciones “más significativas”. Entre estas últimas, ha vuelto a recordar las iniciativas ligadas a las cuatro transiciones en las que su Gobierno ha volcado sus esfuerzos para atraer inversiones y hacer un territorio más atractivo (la digitalización, la transición energética y medioambiental, la transición socio-sanitaria, y el desarrollo de infraestructuras).

En el capítulo industrial, Rementeria ha puesto el foco en la importancia de atraer las “unidades de innovación” de las industrias, para intentar “arraigar” los proyectos que logre captar el territorio. Esta política de atracción se hace con una fiscalidad “adecuada”, que incluye “deducciones que no existen en el resto del Estado”. En este sentido, el diputado general ha explicado que el modelo de su Gobierno está basado en mantener un equilibrio fiscal “necesario” para mantener los recursos públicos, alejado del “modelo de Madrid” que defiende, a su juicio, el grupo Mixto-PPB para Bizkaia.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

POLÍTICA DE CONTRATACIÓN

A raíz de conocerse la resolución de la CNMC sobre el cártel de las consultoras, los grupos EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia han solicitado explicaciones a la Diputación por si hubiera “connivencia” de la Administración foral con estas empresas. El representante del grupo morado Xabier Benito, ha detallado que en la resolución de órgano de competencia del Esatdo, se viene a trasladar que “Euskadi es el epicentro de la trama” y que el conjunto de la Administración foral se ve afectado por “16 hechos probados” ,lo que supone el “14,4%” de la “red Norte” de esta trama.

Ambos grupos junteros han pedido al Gobierno foral “medidas correctoras” para evitar este tipo de fraude. En concreto, la representante de EH Bildu Arantza Urkaregi ha instado a que no se utilice el procedimiento negociado en la contratación pública, o que de darse el caso, no se invite a las consultoras implicadas en el cártel. Se quejan de que el Gobierno foral utilice “cada vez más” a las sociedades mercantiles forales para contratar, lo que va en detrimento de la calidad del empleo. Benito ha pedido incluso que la Diputación realice “una investigación interna”, no usar los trabajos entregados por estas consultoras y la fiscalización de estos contratos por parte del Tribunal Vasco de Cuentas.

La diputada de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Elixabete Etxanobe, ha dicho que la Diputación no cambiará su política de contratación, ya que la CNMC “no pone ningún reproche” a la Administración foral. De todas formas, ha mostrado su “preocupación” por los hechos, advirtiendo de que harán “todo lo que esté en nuestras manos para que dicha práctica no se dé en el futuro”. La responsable foral cree que la resolución de la CNMC evidencia “defectos” en la categoría contractual de algunos concursos “que hace fácil que esto se produzca”, aunque en el sector público foral se usa “de manera residual”, ya que la Diputación promueve “mayoritariamente” el procedimiento abierto de contratación.

OTRAS CUESTIONES

La oposición ha preguntado al Ejecutivo foral por la participación de la Diputación en el Corredor Vasco del Hidrógeno, las políticas dirigidas al colectivo LGTBI, las finales de la Europa League y de la Champions femenina, el juicio por la retirada de la custodia de una menor, el servicio de ticketing en Gaztelugatxe, las medidas para apoyar al sector de transporte de mercancías o el ERTE de Petronor.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En su respuesta, el Ejecutivo foral ha explicado que “en los primeros días de julio” la UEFA tendrá que ratificar la devolución de los 1,3 millones de euros gastados por las autoridades vascas para atraer la Eurocopa 2020, así como la celebración en San Mames de las ya anunciadas dos finales europeas. La diputada de Promoción Económica, Ainara Basurto, ha insistido en que se utilizará “el mismo esquema de colaboración” entre las instituciones vascas para cerrar un acuerdo con el organismo europeo del fútbol.

En cuanto a los accesos a Gaztelugatxe, a partir de mañana, 900 personas podrán visitar al día el entorno de la ermita –antes de la pandemia el aforo se limitaba a 3.000- y se hará un control para comprobar que las entradas individuales se hacen efectivas, así como un rastreo de reservas para evitar el fraude en la emisión de entradas.

En relación a la implantación de peajes en la red viaria de alta capacidad para camiones, el diputado foral de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, Imanol Pradales, ha anunciado que “en las próximas semanas” comenzarán las reuniones con representantes del sector del transporte.